# AGATA DEUNAREN ABESBATZAK

# COROS DE SANTA AGUEDA

**OTSAILAK 4, ASTEARTEA**

Oltza Zendeako haur eta heldu guztiok gonbidaturik zaudete. **Arratsaldeko 5etan Arazurin elkartu, txokolate beroa hartu,** eta herriz herri ibiliko gara Agata Deunaren kantak abestuz.

**Bukaeran txistorra jatea IZKUEN.**

**MARTES, 4 FEBRERO**

Estáis invitados todos los-as pequeños y mayores de la Cendea. Nos juntaremos **a las 5 de la tarde en Arazuri con una chocolatada,** y comenzaremos el recorrido cantando a Santa Agueda.

**Al final, chistorrada en IZKUE**.





## IBILBIDEA / RECORRIDO

**5:00 ARAZURI**
- **Txokolate beroa**

**5:45 ORORBIA**
- **Itziar**
- **Hostal**

**6:30 ASIAIN**

**7:00 IZKUE** (Galtzagorri)
- ***Txistorra jatea/ txistorrada***

**Baserritarrez jantzita joango gara.**
**MAKILAK ERAMAN!**

**Iremos vestidos de caseros-as.**
**LLEVAD LAS VARAS!**

**Antolatzailea/Organiza:** Ayuntamiento Cendea de Olza / Oltza Zendeako Udala
**Laguntzaileak / Colaboran:** Itxaropena eta Galtzagorri Elkarteak, Oltza Zendeako trikitirlariak eta Kantuz taldea

# SANTA AGEDA

I

Zorion etxe hontako denoi
Oles egitera gatoz.
Aterik ate ohitura zaharra
Aurten berritzeko asmoz.

Ez gaude oso aberats diruz
Ezta ere oinetakoz
Baina eztarriz sano gabiltza
Ta kanta nahi dugu gogoz.

II

Santa Ageda bezpera dugu
Euskal Herriko eguna
Etxe guztiak kantuz pozteko
Aukeratua duguna.

Santa Maitea gaur hartu dugu
Gure kideko laguna
Haren laguntzaz bete gentzake
Egun hontako jarduna.

III

Mendi tontorrak elurrez zuri
Atari aldean laiotza
Etxe hontako nagusi jaunak
Urrezkoa du bihotza.

Santa Agedak kendu digu gaur
Eskean hasteko lotsa
Dirurik ez bada berdin zaigu
Gizendutako bildotsa.

IV

Zelai erdian loreak argi
Larros krabelin eta lili
Etxe hontako etxekoandreak
Ama birjina dirudi.

Etxe hontako urdaiazpiko
Asko kakutik zintzilik
Ta lukainka gorriak ugari
Poltsa betetzeko guri.